

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4678

EBAZPENA, 2023ko irailaren 29koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, argitara ematen da 2024-2025 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan –baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere– alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra zozketaren emaitza.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia. Agindu horrek ezartzen du berdinketa kasuak konpontzeko irizpidea abizenen eta izenen araberrako hurrenkera alfabetikoa izango dela, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko da zein letratik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztu egingo du zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua ordezkogaiak, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogai ikasturtean zehar deitu daitekeen edozein hautatze-prozesutan.

Zozketa hori 2023ko irailaren 29an egin zen Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honen egoitzan. Horregatik guztiarengatik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea «P» letrak zehaztuko duela nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan 2024-2025 ikasturtean. Letra hori erabiliko da berdinketa-kasuetan. Era berean, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeran parte hartuko duten izangaiek ikasturtean egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, «P» letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 29a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.